

-ARI (-LARI) ATZIZKIAZ

Bi puntu dira atzizki honen inguruan arautu beharrekoak: formari dagokiona bata —noiz *-ari* eta noiz *-lari*—, eta oinarriaren kategoriari buruzkoa bestea —nola behar du: *ikerlari* ala *ikertzaile*?—.

1. -ari eta -lari formen arteko banaketa:

Gaur egun auzia *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketan dugu, *-lari* aldaera nagusitzen ari baita: *segari* forma zaharraren ondoan *segalari* nagusitu zaigu; *jokari* eta *jokalari* ere hor ditugu lehian, e.a. Hitz berriak eratzeko orain arteko jokabidea eredu hartzen badugu, gomendioa hau izango litzateke:

-a + -ari: izen oinarria *-a* bokalaz amaitzen denean, eta batez ere bi silaba edo gehiagoko oinarrietan:

dantzari, tabernari, pilotari, dendari, errotari

e.a. bezala, berrietan ere. Hortaz:

fisikari, politikari, gramatikari, kritikari.

Halakoa izan da azken urteetako jokabidea ere. Honek ez du esan nahi, jakina, oso sartuak dauden *hizkuntzalari, pentsalari* bezalakoak aldatzen hasi behar denik.

-ia bukaerako oinarrietan *-a* galdu gabe emango da:

ekonomialari, zientzialari, historialari...

Gainerakoetan ez dirudi gomendio orokorrik eman daitekeenik, baina oro har *-lari* da nagusitzen ari den forma: *txotxongilolari...*

2. Oinarriaren kategoria:

-ari atzizkiaren oinarria izen kategoriakoa izan da, eta aditzoin kategoriako oinarriari *-le* edo *-zaile* erantsi izan zaio. Izena izateaz gainera, arrunta eta bizigabea tasunak izaten ditu *-ari*-ren oinarriak. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein izen arrunt, bizigabek har dezakeenik *-ari*: guztiok baitakigu **mahaiari* edo **ardolari* bezalakorik ez dela sortzen. Bidezko dirudi, beraz, hala egitea aurrerantzean ere eta *ikertzaile, hezle* edo *hezitzaile* esatea, ez *ikerlari* edo *hezilari*. *Aurkezle* hobe, *aurkezleri* baino, etab. Erabat sartua dugun *gidari, pentsalari* eta besteren bat ere bere horretan utz daitezke, noski.

Dena dela, badira aditzoin berari bi atzizkiak, *-le* eta *-ari*, erantsiz sortutako izen bikoteak ere, esanahi diferentea dutenak:

zuzendari / zuzentzaile, zaindari / zaintzaile, idazkari / idazle...

Erabat zuzen eta onargarri diren bikote horietan *zuzendu* aditzaren bi adiera desberdin daude oinarrian, edo *idatzi* ekintzarekin loturiko bi lanbide desberdin. Horrelako kasuetan zilegi da, beraz, aditzoin berari *-le* edo *-zaile* eta *-ari*, biak eranstea.

Oharra: txosten honetan eztabaidatzen dena *-ari* eta *-lari* atzizkien erabilera da, ez besterik. Horrela eraturiko izenak dira eztabaidagai. Badira beste hitz asko beste modu batera ere sor daitezkeenak: *filosofo, teologo, biologo, kritiko, politiko, pianista, kritikagile, historiagile, armagin, musikagile*, etab. Hitz hauek guztiak Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak aztertuko ditu eta ikusiko batasunerako onargarri diren ala ez.

Hau guztia kontuan izanik, hauxe erabakitzen du Euskaltzaindiak:

1. Erabil bedi *-ari* forma, *-a* bokalaz amaitzen diren izen oinarriei eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Berez, *gramatikari* edo *politikari* erabil bitez batasunerako (eta ez *gramatikalari* edo *politikolari*).

-ia amaierako izenekin, *-ialari* hobesten da: *historialari*, *zientzialari*.

2. Era berean, erants bekio *-ari* atzizkia izenari, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, *hezle*, *hezitzaile* edo *ikertzaile* dira batasunerako formak, *hezi* eta *iker(tu)* aditzak baitira.

Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean *-le* edo *-tzaile* eranstea, eta *-ari* beste adieran: *idazle* / *idazkari*, *zuzentzaile* / *zuzendari*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko abenduaren 29an onartua)